



Egia bizirik

EGIAKO AUZO ELKARTEA

Korre elektronikoa:
egiabizirik@gmail.com

Elkartearen Twitter kontua:
<https://twitter.com/EgiaBizirik>

Instagram: @egiabizirik

32. ZENBAKIA

2022 ABENDUA

egiabizirik@gmail.com



EDITORIALA

EDITORIAL

Badoa beste urte bat. Ez da berri on askorik izan alajaina: krisi klimatiko, krisi energetikoa, desberdinkeria soziala, pobrezia, gerra... Harrituta gaude argiaren eta gasaren fakturei begira. Azken urteetako jiran segitzen du gure Donostiak: turismo kontrolik gabea neurritz gainezka, etxebizitza beharrak ahaztuta, hirigintza jasanezina... Eta, itxuraz, jende gehiena, etsi-etsi eginda. Dagoena dago, diote askok.

Baina, Egia Bizirik elkartekoon ustez, badago dagoen hori baino gehiago.

ZERTAN DIHARDU EGIA BIZIRIK ELKARTEAK?

Lehenengo, auzoaren alde positiboak zuei jakinarazten. Egian gauza bikainak egiten dituzten pertsonak eta taldeak daude; eta, gainera, gustura eta pozik egiten dituzte. Hau baita aldizkaritxo honen eginkizuna: egiatar guztiei jakinarazi, nahi badute, talde askotan parte har dezaketela, kirolean, kulturaren, behartsuenen laguntzan...

Bigarren, mugitzen den ororekin elkartzen saiatzen gara. Auzoko taldeekin eta ekimen zabalagoekin ere bai. Horrela, Hau Egia Da izeneko proiektuan hartu dugu parte, auzoko kultura aniztasuna eta hark dakarren aberastasuna erakusten saiatu den egitasmoan; auzoko hainbat festatan ibiltzen gara, Sanjuanak edo udaberriko festa esaterako; eta Gora Egia auzoko agendan parte hartzen dugu. Kultura jarduerak ere antolatzen ditugu: hileroko zineforuma adibidez. Hitzaldiren bat ere antolatu dugu, interneteko segurtasunari buruzko Iñaki Alegriaren emanaldia kasu.

Hirugarren, Donostian sortzen ari diren zenbait ekimenekin harremanetan eta elkar lanean gabiltza: Bizilagunekin, Gutun Soziala... Hartu-emanetan gaude beste auzo elkarte batzuekin eta informazioa trukatzeko dugu haiekin.

Gainera, auzotarren ekarpen eta erreklamazioak jaso eta Udalean aurkezten ditugu.

Eta, denok dakizue, Egia Bizirik elkarteak auzoko taldeen arteko elkar lana sustatzen du. Auzoa hobetzeko ezer egin nahi duen edozein taldek gauza bere esanetara.

Gora Egia agenda agertzen denez, hileroko elkartzen gara lehen eta hirugarren asteartean, Atotxako egoitza berrian, Udal Artxiboaren alboan. Bilerak irekiak dira. Denok zaudete parte hartzerako gonbidatuak.

Otro año se nos va. No ha habido muchas buenas noticias, es cierto: crisis climática, crisis energética, desigualdad social, pobreza, guerra... Vemos asombrados las facturas de la luz y el gas. Nuestra Donostia sigue la marcha de los últimos años: un turismo desbocado, olvido de las necesidades de vivienda, urbanismo inhumano... Y, al parecer, casi todo el mundo desanimado. Es lo que hay, dirán muchos.

Nosotros, los de Egia Bizirik pensamos que no es eso solo lo que hay. Hay muchas más cosas. Y creemos que se pueden hacer muchas más.

¿Y QUÉ HACE EGIA BIZIRIK?

Pues lo primero, daros a conocer las cosas positivas del barrio. En Egia hay personas, grupos, que hacen cosas estupendas y que, además, disfrutan haciéndolas. Esa es la función de esta pequeña revista. Hacer saber a todos los egiatarras que, si quieren, pueden colaborar con muchos grupos: en el deporte, en la cultura, en la atención a los más desfavorecidos...

Lo segundo que hace Egia Bizirik: intentamos colaborar con todo lo que se mueve. Colaborar con grupos del barrio, y también con otras iniciativas que son más amplias. Así, hemos tomado parte en Hau Egia Da, un proyecto que ha intentado mostrar la diversidad cultural del barrio y la riqueza que esto supone; participamos en varios festejos del barrio, como San Juan, fiesta de primavera; colaboramos con Gora Egia, la agenda del barrio. También hacemos actividades culturales: el cine fórum mensual, por ejemplo. Organizamos también alguna charla, como la que dio Iñaki Alegria sobre la seguridad en Internet.

Lo tercero, estamos en contacto y participamos en movimientos que se están dando en Donostia: Bizilagunekin, Carta Social. Mantenemos contacto con otras asociaciones de vecinos e intercambiamos información.

Además, escuchamos las aportaciones y reclamaciones de vecinos y vecinas y las llevamos al Ayuntamiento.

Y, como todos sabéis, Egia Bizirik fomenta la colaboración entre los diferentes grupos del barrio. Cualquier grupo que quiera hacer algo para mejorar el barrio, nos tiene a su disposición.

Como aparece en Gora Egia, nos reunimos el primero y el tercer martes de cada mes, en el nuevo local de Atotxa, junto al archivo municipal. Las reuniones son abiertas. Estás todos y todas invitados a participar.

DONOSTI GAIN

Egia cuenta con una prestigiosa prueba ciclista internacional junior

Desde el año 1963, el barrio cuenta con una prueba ciclista para la categoría de Juniors, que año tras año ha ido consolidándose, primero a nivel autonómico, luego a nivel nacional, hasta hoy en día en que la prueba ya está consolidada y considerada como una de las más destacadas del calendario Internacional. Un detalle que no se puede pasar por alto es que desde su inicio el patrocinador principal de la prueba sigue siendo el mismo, **ELECTRODOMESTICOS ZUMY**, merito digno de destacar en los tiempos que corren.

La prueba está organizada por la Sociedad DONOSTI GAIN, y año tras año ha ido buscando poder ir subiendo el nivel de la prueba tanto a nivel organizativo como de participación, hasta conseguir que tuviese carácter Internacional.

Para poder llegar hasta donde se ha llegado, la Sociedad DONOSTI GAIN se dio cuenta de que por sí sola no podía llevar adelante una organización con semejante infraestructura y número de personal humano necesario para un buen desarrollo de la prueba. Por ello, se puso en contacto con las entidades del barrio para pedirles su colaboración, y se puede decir que hoy en día sin la ayuda inestimable de las Sociedades ARRANO y UR-ZALEAK, y de los clubs EGIA ESKU BALOIA y AITZARTE MENDI TALDEA, no hubiera sido posible llegar hasta donde se ha llegado.

Como muestra de la categoría de la prueba, indicar que este año 2022 se disputó la prueba el día 24 de abril, contando en la línea de salida con los mejores corredores Juniors a nivel mundial encuadrados en equipos de Francia, Portugal, Bélgica, Holanda, Lituania, Reino Unido, etc... No hay más que fijarse en la clasificación de la prueba, que la ganó el holandés MENNO HUISING, siendo segundo el portugués ANTONIO



MORGADO y tercero el belga VLAD VAN MECHELEN; estos dos últimos repitieron puesto en el Campeonato del Mundo disputado en Australia, obteniendo las medalla de plata y bronce, respectivamente.

El próximo año 2023, la prueba se disputará el día 23 de abril, y el objetivo, aunque difícil, será superar a la edición anterior, y para ello volverán a contar en la línea de salida con los mejores ciclistas y equipos internacionales.

Azoka Txikia

Kaixo Egia! Azoka Txikiko lan-taldearen izenean eskerrik asko azoka hau ahalbidetzen ari zareten guztiei, izan ekoizle ala kontsumitzaile.



Hasi gñenetik bertako ekoizleei espazio bat eskaintzen ari gara, bertako eta garaiko produktu osasuntsuen eskaintza zabaltzen ari gara, tarteka azoka bereziak antolatzen jarraitzen dugu, Plaza Berri berpizteko aletxo bat jarri dugu... Bueltan, izugarri pozten gaitu astelehenero azokatik pasatzen diren auzotarren joan-etorriak ikusteak.

Bukatzeko, astelehenero Plaza Berritik pasatzen jarraitzea gustatuko litzaiguke; eta auzotar gehiagorengana iristeko irrikaz gaudenez, gure egitasmoaren berri zabaltzen laguntzeko eskatzen dizuegu. Milesker eta aurrera!

Bukatzeko, astelehenero Plaza Berritik pasatzen jarraitzea gustatuko litzaiguke; eta auzotar gehiagorengana iristeko irrikaz gaudenez, gure egitasmoaren berri zabaltzen laguntzeko eskatzen dizuegu. Milesker eta aurrera!

Todos los lunes, en Plaza Berri, de 18:00 a 20:00 horas ofrecemos un espacio a productores locales de alimentos para que el vecindario pueda comprarles alimentos sanos y de temporada. De paso, damos color y animación a la plaza.

Kantu Jira

Jakin badakigu, Kantu Jira ez da soilik kantatzea; abesti bakoitzak hainbat unegogorazten dizkigu eta sentimenduak sortu lerroen artean agerian edo ezkutuan egileak sartu eta sortu zituenak. Beraz, ariketa mentala bada non garai desberdinetako mezuak eta kezak uztartzen diren. Bada ere hainbat momentu ospatzeko aukera: tokiko jaiak, Euskara eguna, omenaldi anitz... Hemen, berriz, beste bat egitea suertatzen da ekintza, testuinguru eta jendeen artean.

Eskerrak ematen dizkizuegu azaltzen zareten guztioi, zuen ekarpenaz gain, posible egiten baituzue hileroko hitzordua, eta, kalea gure eszenatokia denez, txalo eta begirada alai animatzen gaituzunoi.



2022-2023 Egiako Zineforuma

Ikasturte honetan ere Egia Bizirik auzo elkarteak antolatzen duen Zineforuma bere emanaldiak eskaintzen ari da bere ohiko ordutegian, hilabete bakoitzeko bigarren edo hirugarren asteazkenez (hilabete horretako bestelako jaiegunen arabera), arratsaldeko 19:15etan. Pelikularen ondoren solasaldia izaten da. Gonbidatuta zaudete!



Zineforum de Egia continúa con sus proyecciones y posterior tertulia en el horario habitual: segundo o tercer miércoles de mes (según los días festivos del mes), a las 19:15.

FEDERA ZAITEZ!



Plaza Handi
(Luis Martin Santos Plaza, z/g.)
20012 EGIA - DONOSTIA
www.aitzarfe.com
Aitzartemet@gmail.com

AITZARTE-MENDI-TALDEA

2022-2023ko MENDI IRTEERAK



Urria 01 eta 02 Pirinio Asteburua (Ibones Azules - Anayet)
09 Euskalherriko Erdigune Eguna
23 Finalista Eguna

Azaroa 06 Beruete - Ireber - Ernaitzu
20 Ola - Meatza Meategiak

Abendua 18 Jaizkibel Kostalde

Urtarrila 08 Babarrunada
29 Gorriti - Muxeo - Urkita

Otsaila 12 Arrikruz Kobazuloa - Aitzulo - Orkatategi
26 Aranguren Itzulia

Martxoa 12 Ibilaldi Neurtua
19 Madoz - Akier - Ata

Apirila 02 Azpilkueta - Infernuko Errota - Etxalar
23 Arantzazu - Aratz - Araia

Maiatza 06 eta 07 Asteburuko Irteera (Lagunas de Neila - Picos de Urbión)
21 Tertanga - Txarlazo - Nerbioi Iturburu

Ekaina 04 Tologorri
18 Egia - Arrokaundieta (Parrillada)

Porrontxo Jaiak



Berrogei udaberri igaro dira Porrontxo jaietako lehen txupina bota genuenetik. Hamarnaka suziri koloretsu bota dira gurean, baina aurtengoak berezia izan behar zuen. Hala bada, 2022 honetan, auzotarron irrikak eta gure gogoak bat eginda, jende berriz osatutako talde txukuna antolatu genuen. Ez beti bezala, aurtengo jaiak prestatzeko gogotsuago sentitu ginen.

Oinarrizko Jai Batzordeko bost kideok beste hamar lagun izan ditugu inguruan, hainbat kuadriletako jendea. Laguntza ederra, alafede. Biba zuek!

Mila esker lokala eta bertako materiala txukuntzen eta garbitzen lagundu duzuen auzotarrak; eskerrik asko, halaber, erraldoien jantziak konpondu eta garbitu zituenari. Eta eskerrak ere auzoko komertzio guztietatik, banan-banan, iragarkiekin berri ona zabaltzen (eta beharrezko laguntza jasotzen) ibili diren koadrila kideei. Ez ditzagun ahaztu bilertara laguntzera gerturatu eta euren berotasuna eskaini diguten koadrilak, haiek gabe ez baita merezi duen jairik. Ezin aipatu gabe utzi jaiak leku seguru bihurtzeko protokolo zein zaintza saioak antolatu dituzten brigada kideak. Gaueko ordu txikitik zein goizean goiz beharrezko txanda egiten egon den koadrilari, mila esker zuei ere. Herri bazkarian zeuden aulkia jasotzen lagundu zuen ezezagunari ere, eskerrik asko. Laburbilduz: eskertza handi eta borobila zor diogu Egia. Jaiak denon artean ateratu ditugu aurrera!

Gauza onak esatea bezain egokia izan ohi da hobetu beharrekoak aipatzea. Izan ere, aurtengo antolakuntzan espero ez genituen egoera batzuk bizi izan ditugu. Espero gabeko masifikazioari aurre egin behar izan diogu. Larunbatean (batez ere) zegoen jendetzak jai antolatzaileak erabat gainditu zituen eta sortua geneukan egiturak ozta-ozta eutsi zuen. Larunbatekoaz gain, jaien azken txanpako lan karga uste baino handiagoa izan da. Jaiak gozo hasi eta gazi bukatu ditugu. Egindakoaz harro, asko eskertuta, baina oso nekatuta.

Guzti honek auzoko beste jai sortzaileekin partekatutako zenbait kezka sorrarazi eta gure arteko lanketa batzuk burutzeko beharra erakutsi digu. Pixkanaka –jai osteak utzi digun erresaka emozionalak uzten digun heinean– aurrera egin eta indarrak batzen joango gara.

Urte ona izan dela esan dezakegu, baina batez ere 2023ra begira zerbait egin behar dugula argi dugu. Horrexegatik, egitarro, hilabete hauek deskantsatu eta datorren urtekoetarako prestatzeko eskatzen dizuegu. Lanaz eta gogoz 2023ko jaiak denon artean aurrera aterako ditugu!

40 años ha cumplido Porrontxo jaiak este 2022, gracias, como siempre, a la participación de mucha gente del barrio en su organización. No todo fue un camino de rosas: mucho trabajo, situaciones inesperadas... Para el año que viene habrá que reflexionar sobre las fiestas que queremos hacer.

Gora Porrontxo Jaiak eta gora Egia!

Obrak

Auzoa, duela hilabete askotatik, torturatuta dago obregatik: Iztueta, Mundaiz, tren geltokia pasarelarekin, Astiñeneko zubi amaigabea. Inkomunikatuta egon gara. Egia Bizirik-ek behin eta berriz eraman du bere protesta udaletxera. Ezin dira gauzak horrela egin.

Egoera honi buruzko bideo bat egin genuen, jende askok ikusi zuena.

Bideoa ikusi nahi baduzu, jarraian dagoen estekan daukazu:

El barrio, desde hace muchos meses, está torturado por las obras: Iztueta, Mundaiz, la estación con la pasarela, el interminable puente de Astiñene... Hemos estado incomunicados. Una y otra vez Egia Bizirik ha llevado su protesta al Ayuntamiento. No se pueden hacer así las cosas. Hicimos un video sobre esta situación, que fue visto por mucha gente.

Si quieres ver el video, lo tienes en el siguiente link:

<https://www.youtube.com/watch?v=9Z8eRuWttsU>



Lokala

Egia Bizirik-ek lokal berria lortu du. Non dago? Blas de Otero plaza 1, Udal Artxiboa dagoen tokian, Tabakaleraren eta geltoki berriaren parean. Udalak laga digu. Bi gela ditu: bata bulego moduan erabiltzen dugu eta, bestea, bilerak egiteko. Tamaina ona dauka eta ondo egokituta dago. Arazo bakarra, lur azpian dagoela, soto bat da. Egia Bizirik-ek Udal Artxiboarekin, Trebeskarekin eta Club Jabierrekin konpartitzen dugu. Jakingo duzuen bezala, denbora dexente daramagu baldintza egokiak dituen lokal bat lortzeko. Kultur Etxean egon ginen, gero Ametzagaña kalean, Irutxuloarekin batera. Azkenean, lokal berria lortu dugu. Egia da ez dagoela auzoaren erdian eta, sotoa denez, ez daukagula sarrera zuzenik kalera. Horrek ikusgaitasuna kentzen digu, baina, tira, lokal duin bat da. Ezagutzera konbidatzen zaituztegu. Etorri nahi edo behar duzuenean. Pozik har-tuko zaituztegu. Auzoko bizitza hobetzeko proiektuak sustatzen gabilta lan eta lan.



iEgia Bizirik estrena nuevo local! ¿Donde está? En la plaza de Blas de Otero nº 1, en el Archivo Municipal, frente a Tabacalera y la nueva estación. Nos lo ha cedido el Ayuntamiento. Tiene dos estancias: una la utilizamos como oficina y la otra para hacer reuniones. Tiene buen tamaño y está bien acondicionado. Compartimos el local con el Archivo Municipal, Trebeska y el Club Javier. Como sabréis llevábamos tiempo intentando conseguir un local en condiciones. Estuvimos en la Casa de Cultura, luego en Ametzagaña junto con Irutxulo en un local pequeño. Ahora tenemos un nuevo local, un poco apartado del centro neurálgico del barrio. Es verdad que al ser un sótano no tiene acceso directo a la calle, y esto nos quita visibilidad, pero el local es digno. Os invitamos a conocerlo, venid cuando queráis o lo necesitéis. Estaremos contentos de recibirlos porque creemos que desde los proyectos comunes y el trabajo compartido contribuiremos más eficazmente a las dinámicas de mejora de nuestro barrio y a dar visibilidad a Egia Bizirik.

Trebeska Dantza Taldea



Berritasunez beterik iritsi zaigu Trebeska Dantza Taldera 2022 urtea. Batetik, lokal berria estreinatuta dugu aurreko lokaletik metro gutxira. Blas de Otero plazan dugu sarrera, Udal Artxiboarekin partekatuta.

Bestetik, lokal finkoa izateak gure ohiko funtzionamendura itzultzeko aukera eman digu. Talde nagusia bere entseguen hasi da pandemiaren geldialdiaren ondoren. Astelehen arratsaldetako ikastaroak inoiz baino indartsuago etorri zaizkigu. Orotara 50 partaide inguruk dihardute plaza dantzak ikasten giro ederrean. Aitor Ikastolako dantza ikasleen talde kopurua ere handitu da. Nobedade bezala, aurten ostiral arratsaldeetan haurrentzako taldea sortzen saiatu gara, ozta-ozta ez gara ikasle kopuru minimora iritsi. Hurrengo urtean baietz!

1976tik ari da Trebeska Euskal Herri osoko dantzak Egian irakasten. Gure taldea zabalik dago euskal dantzetara gerturatu nahi duen edonorrentzat. Jarri gurekin harremanetan instagram edo email bidez (info@trebeska.eus).

Azkenik, eskerrak eman Egia auzoko eragileei azken urte korapilatsuetan emandako laguntzagatik eta, bereziki, Aitor Ikastolari aurreko ikasturtean gure jarduerak egiteko leku bat eskaini izanagatik.

Trebeska Dantza Taldea ha estrenado local en la plaza Blas de Otero, entrada por el Archivo Municipal. Desde 1976 se dedica Trebeska a enseñar y difundir en el barrio los bailes de toda Euskal Herria. Para contactar, a través de Instagram o el

ONGI ETORRI ESKOLARA proiektua

Egia auzoan 2016tik da-
goen Ongi Etorri Eskola-
ra proiektuak 2022an
ere lanean jarraitu du, auzoko
familien arteko kulturarteko
harremanak sustatzeko eta
hezuntza-komunitatean kul-
turartekotasuna bultzatzeko
Aitor ikastolan, Zuhaitzi esko-
lan eta Maria Reina eskolan.

Aurten, hainbat esku-hartze
egin dira Egia auzo inklusiboa
izan dadin. Horretarako, beste
herrialde batzuetatik auzora
iritsitako familiak tokiko fami-
liekin harremanetan jartzen
dituen Familia Laguna programaz gain, guraso eta irakasleen formakuntzak, auzoko hi-
ru eskolekin "Gure lurra" ekimena, "Mila kolore" programa edo auzoko familientzako
Egiako baliabideen gida 5 hizkuntzatan egin dira. Honekin batera, Irutxuloko Hitza-re-
kin lankidetzak-ekimen berri bati ekin diogu, kultura-aniztasuna prentsan ikusarazteko.
Ekimen hau Egia auzoko artikularekin hasi da: "Argi nuen Egian ireki behar nuela den-
da; hemen bizi gara gu".



El proyecto Ongi etorri eskolara, presente desde 2016 en el barrio de Egia, ha se-
guido trabajando en 2022 para fomentar las relaciones interculturales entre las
familias del barrio y para impulsar la interculturalidad en la comunidad educati-
va en Aitor ikastola, Zuhaitzi eskola y Maria Reina eskola.

Este año, se han realizado diferentes intervenciones para contribuir a que Egia sea un
barrio inclusivo. Para eso, además del programa Familia Laguna, que pone en contac-
to a familias recién llegadas al barrio desde otros países con familias locales, se han
realizado formaciones para familias y profesorado, la iniciativa "Gure lurra" o el pro-
grama "Mila kolore" con las tres escuelas del barrio, y la guía de recursos de Egia pa-
ra familias en 5 idiomas. Este año, hemos comenzado también una nueva iniciativa de
colaboración con Irutxuloko Hitza para dar visibilidad a la Diversidad cultural en la pre-
nsa: "Ongi etorri auzora". Esta iniciativa, ha comenzado con el artículo del barrio de
Egia: "Teníamos claro el abrir una tienda en Egia, aquí vivimos nosotros"

Egian erosteko hamaika arrazoi! ¡Hay tantas razones para comprar en Egia!

HEGIAN

Hegian, la asociación de comerciantes del barrio de Egia, integrada en Federación
Gipuzkoa Merkataria, pone en marcha su Campaña de Navidad con el objetivo de
agradecer la fidelidad de los clientes a través de varios sorteos.

Hasta el próximo 5 de enero, quien realice una compra en alguno de los comercios asocia-
dos, participará en el sorteo de una cesta de Navidad por valor de 60€ en cada punto de
venta y un "pack-escapada" para el Hotel Arima.

Kanpainan, hainbat motatako 28 establezimenduk hartuko dute parte, pertsonaren ekipa-
menduren, etxearen, elikaduraren eta aisialdiaren hainbat eremu barne hartuta.

Parte hartzen duten establezimenduak erraz identifikatuko dira albiste honekin batera doan
kartelarekin.

La campaña navideña es un momento
de especial relevancia para los comerciantes de nuestro barrio, por lo que desde la Asociación se recuerda la impor-
tancia de la apuesta por el comercio local.

Por ese motivo, se colocarán en los es-
tablecimientos carteles con los que el
público conocerá la historia de cada uno
de ellos y que llevarán un código QR des-
de el que nuestros clientes podrán indi-
car por qué les gusta comprar en el ba-
rrio. Las 5 respuestas más originales
conseguirán un vale de 100 € cada una
para consumir en los establecimientos
participantes en la Campaña.

Istorio horiek, gainera, animazioen bidez
argitaratuko dira sareetan.

Kanpaina hau Donostiako Udaleko Merkataritza Zinegotzigoak eta Donostiako Sustapenak
diruz laguntzen dute.

Izan ere, Egiako establezimenduetan erostea da gure kaleak bizirik mantentzearen alde bo-
rrokatzeko formularik onena.

Izan ere, Egiako saltokiek zerbitzu ona, erosotasuna, kalitatea eta segurtasuna eskaintzen
dizkigute, gure dendentzako xehetasun berezienak bilatzen ari garen honetan.

Eta, gogoratu, Empark-ekin egindako lankidetzak-hitzarmenari esker, Gabonetan, Atotxako
aparkalekuan 30 minutuko doako aparkaleku-txartelak oparituko dituztela saltoki elkartuek.



Gordegia

Gure taldeak bere laugarren urtea betetzeko bidean jarraitzen du, ttriki-
ttarraka. 2022. honetan ere ez ditugu gure asmo guztiak bete –hizketan
hasi eta batzuetan berotu egiten gara–, baina atera dira ekimen politikak:

- Maiatzean, 36ko gerran auzoan gertatutako gorabeherak kontatzeko, ibilbide bat antolatu genuen, Josetxo Otegi gidatuta.
- Ekain aldera "Txurrutala" liburuaren bigarren edizioa atera genuen.
- Porrontxoetan, jaiei buruzko argazki- eta txartel-erakusketa jarri zen Plaza Haundin.
- Azaroan, 2023ko egutegia atera eta auzoko denda eta tabernetan jarri genuen salgai.
- Egutegiaren aitzakiarekin, Fernando Postigo argazki-lariak hitzaldia eman zuen Teila Fabrikan.
- Azaroan hasita, unibertsitateko praktikalari batekin, auzoko euskalduntze-prozesua aztertzen ari gara.
- Abendu-urtarrilean, auzoko umeek Egiako historia ezagutzeko, unitate didaktiko bat sortu dugu HEZTEN aisialdi-taldeak eta Antxetak lagunduta, eta, ondo ateratzen bada, Maria Reina eta Aitor ikastetxeetako curriculu-mean txertatu nahiko genuke.



Horrez gain, gure webgunea osatzen eta hobetzen jarraitzen dugu, eta horre-
tarako, beti bezala, zuen ekarpenekin zain gaude.

Aquí seguimos, a punto de cumplir nuestro cuarto año. Este 2022, aun-
que no hayamos realizado todos nuestros propósitos –cuando nos pone-
mos a hablar a veces se nos va olla–, han salido cosas bonitas:

- En mayo, organizamos un recorrido guiado, conducido por Josetxo Otegi, para conocer lo acontecido en el barrio en la guerra del 36.
- Hacia junio, publicamos la segunda edición del libro "Txurrutala".
- En Porrontxos, se instaló en Plaza Haundi una exposición de fotografías y carteles sobre las fiestas.
- En noviembre, sacamos el calendario de 2023 y lo pusimos a la venta en tiendas y bares del barrio.
- Con la excusa del calendario, el fotógrafo Fernando Postigo dio una conferencia en Teila Fabrika.
- Desde noviembre, contamos con una universitaria en prácticas, con la que estamos estudiando el proceso de euskaldunización del barrio.
- En diciembre-enero, para que los chavales/as conozcan la historia de Egia, hemos creado una unidad didáctica con la colaboración del grupo de tiempo libre HEZTEN y Antxeta, y, si sale bien, nos gustaría incorporarla al currículum de los colegios María Reina y Aitor.


Además de eso, seguimos alimentando y mejorando nuestra web y para ello,
como siempre, contamos con vuestras aportaciones.

ANIMATU ETA EKARRI ZUEN ARGAZKIAK!

¡ANIMAROS Y TRAEV VUESTRAS FOTOS!

Xabier Mendi Kirol Elkartea

Laurogeigarren hamarkadatik
Mandasko Dukearen lokale-
an egon eta gero, Xabier
mendi taldea lekuz aldatu gara.
Orain Blas de Oteroko plazan gau-
de, Udal Artxibategiaren sarrera
berrian, Trebeska Dantza taldea-
rekin batera. Xabier Mendi Kirol
Elkartekook bertan daukagu egoi-
tza, taldearen jarduerak egiteko
(mendi ibilaldiak, igoerak, eskala-
da, alpinismoa eta federatzen la-
guntzeko).



Udalak sustatutako leku aldaketarekin eta elkarkideon indarrak batzeari esker, roko-
dromoa guztiz berri dugu.

Lanak amaitzean, mendi taldea eta rokodromoa ahalik eta azkarren jarriko ditugu mar-
txan. Informazio gehiagorako, idatz helbide honetara: dxabiermke@gmail.com

Xabier Mendi Kirol Elkartea estrena nuevo local, cedido por el Ayuntamiento. Aho-
ra estamos en la plaza Blas de Otero, junto con Trebeska dantza taldea, en la nue-
va entrada del Archivo Municipal. Hemos renovado el rocódromo. Para más infor-
mación: dxabiermke@gmail.com

Teila Fabrika

Kaixo Egia! Teila Fabrikak, ere, auzoa hobetzeko ahal-ekin horretan bere aletxoak jarri nahi du. Bertan ditugun espazioak auzoaren zerbitzura jarri nahi ditugu. Gure espazioak, Egia auzoa hobetu nahi duten ideia, amets, egitasmo eta bestelakoekin bete nahi ditugu. Norbanako edota kolektibo gisa dituzuen helburuetara iristen laguntzeko, zuen zerbitzura jartzen den tresna gara. Elkarlanean sinesten dugulako, zeharkatu irekita dauzkazuen ateak eta aurrera! Jarrai dezagun denon artean auzoa hobetzen!



Teila Fabrika ofrece sus espacios de trabajo para todas las actividades que redunden en beneficio del barrio. Porque creemos en el trabajo en común, os invitamos a compartir nuestros espacios.

EGIAko Kaleko Afari Solidarioak, KAS



Egia da KAS Alde Zaharrean hasi, Egian segi eta Amarara hedatu dela. Egia da KAS Egiak aurki 2. urtea beteko duela, egunero Kanean bizirautean dutenei Afari bero bat eskeintzen. Egia da elikagaiak, goilarak, tuperrak eta plastiko poltsak partaideen poltsikoetatik erosten direla. Egia da batzuek ez dutela KAS asko maite, beste batzuek geroz eta gehiago berriz. Egia da batzuetan liskarrak badirela, gehiagotan aldiz irri egiten duten begiraden gurutzaketak. Egia da Udala KASen jantoki sozialaren eskaeraren aurrean entzungor mantentzen dela, KASEk hortaz tinko jarraituko du gosea asezteko oinarriko elikadura bete gabe dagoen bitartean. Egia da Jon Maiak, Abenduaren 28ko Kantu bat gara kontzertuan KAS gonbidatu duela, Kurasaalean Anaitasuna eta Ahizpatasuna Sentitzeko. Egia da Sukaldari Solidarioak behar ditugula Arrastaka KAS Arrakastara eramateko! EGIA n KAS bizirauteko gehitu KASera!

Kaleko Afari Solidarioak, **KAS**, iniciativa ciudadana que ofrece una cena diaria a las personas sin hogar, que sobreviven en las calles de Donostia, inició su andadura hace dos años en la Parte Vieja. A los seis meses se extendió a Egia y actualmente también funciona en Amara. Todos los alimentos, así como los recursos materiales necesarios para preparar la bolsa de comida (tupers de aluminio, servilletas, cucharas, bolsas de plástico, etc.) se financian de los bolsillos de las personas participantes en la iniciativa. El objetivo es conseguir que el Ayuntamiento se responsabilice y cubra la necesidad básica de alimentación que sufren más de 200 personas en la ciudad. Hasta el momento no se ha conseguido, por lo que KAS seguirá cocinando solidariamente! Te animamos a que te sumes a KAS Egia, ise necesitan personas voluntarias!

Solasaldi literarioa



2022-23rako literatur proposamen interesgarria prestatu dugulakoan gaude. Hasierarako Joseba Sarrionandia LAGUN IZOZTUA eleberriarekin ekarri nahi izan genuen Egia, baina, arazo bat tarteko, ez genuen lortu. Dena den, oso uzta anitza planteatu dugu, kartelean ikusiko duzue, eta genero guztiei egin diegu keinu, ahalik eta aberatse- n izan dadin ekarpena. Pentsatzen dugu solasaldietara animatzeko moduko eskaintza dela, eta bereziki egitarrei dei egiten dizuegu anima zaitetzen. Ezin duzuela hilabetero etorri? Ba aukeratu hirutik bat eta eutsi horri. Irakurtzearen plazer- rraz gain, lagun arteko solasaldian zure iritzia plazaratzeko aukera izango duzu, zeren, ez dakit ba ote dakizun baina solasaldiak inolako aurreiritzirik gabekoak dira; zer den ona eta zer txarra epaitu gabe, gune askea dugu hau, nork gustuko duen gogoeta egin dezan. Literatur on, lagun.

Egia Zeinuka



Egia Zeinukatik 2022 urtean ere pertsona gorren errealitatera hurbiltzeko eta gure errealitatea aberasten jarraitzeko apustua egin dugu berriro. Zeinu hizkuntza ikasten bost talde izan ditugu martxan 2022an; urteak pasa ahala gero eta gehiago gara familia hau osatzen dugunak eta ilusio handiarekin jarraitzen dugu talde kopuru hauek mantendu eta gehiago osatzeko asmoz.

Saioak irakasle gor batek gidatzen ditu. Oso esperientzia positiboa izan dugu azken ikasturteetan, eta zeinu hizkuntza ikasteaz gain pertsona gorren errealitatera hurbildu eta ezagutzeko aukera ederra izan dugu. Beste ekintza batzuk ere antolatu ditugu. Horien artean zeinu poteak, non pertsona gorak eta entzuleak elkartu eta zeinu hizkuntzaz aritzeko aukera izan dugun, izan ere, Egian ere badaude pertsona gorak. Elkarrekin komunikazio guneak sortu ditugu, eta esperientzia oso aberasgarria izan da denontzat. Beste ekintzen artean zineforuma, ipuin kontalaria, ikastaro trinkoak... izan ditugu.

Azkenik, ekainean Zeinu hizkuntza eguna antolatu genuen. Bertan jende askok parte hartu zuen eta pertsona gorren errealitatea gertutik ezagutu eta auzoan isladatzeko aukera izan genuen. 2023an Egian aniztasunari lekua ematen eta zeinu hizkuntzarekin gure egunerokoa aberasten jarraituko dugu.


Alo largo de 2022 hemos organizado cinco grupos de aprendizaje del lenguaje de signos, que han servido también para acercarse a la realidad de las personas sordas. Las sesiones las dirige una persona sorda, por lo que la vivencia es bien real. Otras actividades han sido el Zeinu pote, cineforum, cuentacuentos. Para cerrar el curso, en junio organizamos el Día del Lenguaje de Signos. Prestad atención a nuestras iniciativas. Seguiremos haciendo barrio, dando cabida a la diversidad. ¡Seguid agitando las manos!

TXOKO BERRI El Último Reducto

Atzera begiratzeak min egiten dizue, eta aurrera begiratzeak bildurtzen zaituzte; begira ezazu ezker edo eskubira, eta han egongo naiz zure ondoan.

Vas acumulando cromos de una colección que sabes cuando la empezaste, pero desconoces el número de unidades que te faltan para terminarla.

Durante muchos años no eras consciente de la existencia ni de la colección, ni de los cromos, ni del álbum; y un buen día descubres que tienes un mazo de cromos y no sabes cómo han llegado, pero ahí están... en tus manos. Y sin quererlo ni beberlo perteneces de hecho, por arte de birlibirloque, al grupo social que carga con el álbum a diario. Por cierto los cromos son personales e intransferibles, como el carnet de identidad y los calzoncillos que diría un castizo. Acercarte con tu álbum a Txoko Berri es políticamente correcto, no importan las casillas que te falten para completar la colección; de alguna manera es el último reducto para coleccionistas.



¡Con oferta gastronómica renovada para 2023!

Antxeta-ttantakun aisialdi elkarteak

Ilbiliz egiten omen da bidea eta luzea da Antxeta-ttantakun aisialdi elkarteak Egia auzoan egindako ibilbidea; horrela beteko ditugu datorren ikasturtean 40 urte. Gauza asko ditu gordeak 40 urte motxilan dituen elkarte batek. Bizipen ugari eta erronka asko. Amets handi bat izan zuten hasierako sortzaile horiek eta horretan jarduten dugu gaur egungoek ere. Egian hazi eta hezi nahi dugun elkarteak gara eta haur eta gazteei ekintza ugari eta anitzak eskaintzean jartzen ditugu indarrak. Besteren artean, arimen gauak, gabonak zuretzat, udako egitasmoak etab. Mundua alaitzen eta auzoa eraikitzen jarraitzeko ezinbestekoak dira auzoko haurrak, gazteak, familiak eta bidelagunak, denok batera eraikitzen baitugu Antxeta!



Llevamos 40 años el grupo de tiempo libre Antxeta-ttantakun organizando actividades lúdicas para niñas, niños y jóvenes del barrio. Queremos crear y crecer en el barrio, junto con padres y acompañantes, para llenar el tiempo libre de la gente jovencilla y joven con actividades que nos alegren.

Ttan Ttakun Irratia

Ttan Ttakun irratiak berean darrai, bi kanaletatik emititzen, 24 orduz, zuzeneko emisioak, musika tartekak eta errepikapenak eskainiz. Lehenengo kanala, FM 107.2, Donostian eta inguruko herrietan entzun daiteke; bigarren kanalak, FM 107.7, musika saioak eskaintzen ditu 24 orduz. Streaming bidez ere jarrai daiteke ttantakun.eus web orrian.

Ttan Ttakun irrati Donostiako irrati euskaldun librea da. Edonork parte hartu dezakeenez, gonbita luzatzen dizugu bertara etorrita elkarrekin irratigintzaz gozatzera, irratsaio bat eginez edo beste edozein modutan lagunduz. Aurkezteko egun aproposena, hilabete bakoitzeko lehen asteartea izaten da, bilera irekia egiten baitugu 20:00 orduetan.

Egoitza Txondorra kultur gunean dugu, Egiako Karmengo ama kaleko 60. zenbakiko behaldealdean. Telefonoa: 688804648; email: ttantakunirratia@gmail.com; twitter kontuan ere jarraitu gaitzakezue.

Ttan Ttakun Irratia, la radio libre euskaldun de Donostia sigue emitiendo en sus dos canales, 24 horas al día, ofreciendo programas en directo, sesiones de música y reposiciones. El primer canal, FM 107.2 se sintoniza en toda Donostia y alrededores. El segundo canal, FM 107.7, ofrece música las 24 horas. También se puede seguir en streaming en la web ttantakun.eus. Te animamos a participar en esta radio libre. Para contactar: teléfono 688804648; email: ttantakunirratia@gmail.com; también nos puedes seguir en Twitter.



Gora Egia!

Aurten Porrontxo Jaiekin aliantza garrantzitsu bat egin dugu eta jaien gunea porrontxojaiak.goraegia.eus sortu dugu gure webgunearen barruan. Honela kuadrilek argitaratutako albisteak bi guneetan ageri dira eta gure sare sozialetatik eta Telegram kanaletik zabaltzen ditugu. Trukean gure logoa ageri da Porrontxotako karteletan babesle gisa eta txosnan tonbolla bat jarri genuen mozorrotzeko materialarekin. Beste eragileei ere eskaintza berdina egiten dizuegu, zuen webgunea eraikiko dizuegu dirurik eskatu gabe!

Bestetik, martxoan eragileen eskura dagoen soinu ekipoaren eskaera orria martxan jarri genuen, eta irailean gure irudi berria aurkeztu genuen Atotxa dorrea baliatuz! Gogoratu auzokideek iritzi, deialdi eta albisteak argitaratu ditzakezuela eta guk zabalduko ditugula. Zenbat eta eduki gehiago bidali, geroz eta erakargarriagoa izango da webgunea eta arreta handiagoa lortuko duzue!



Gora Egia! goraegia.eus, la plataforma virtual del barrio, se ofrece al vecindario para difundir opiniones, actividades y noticias en su web y en su canal de Telegram.

Egiako Etxebizitza Sindikatua

Egiako Etxebizitza Sindikatua eragile bat da etxebizitza, auzo eta hiriarren merkantilizazioaren kontra borrokatu eta etxebizitza eskubidea gauzatzeko lan egiten duena. Gure jarduna, batetik rentisten gehiegikerien aurrean aholkularitza eta salaketa egitea da, eta bestetik, espekulazioa, gentrifikazioa eta turistifikazioa hauspotzen dituen politika publikoei aurre egitea. Helburu dugu etxebizitzaren desmerkantilizazioa lortzea eta hiriak negozio egiteko esparrua izatetik bizitza partekatuak garatuko diren espazio bihurtzea.



Gurekin harremanetan jarri zaitezke etxebizitzaren jabearekin arazoak badituzu edota aholkua behar baduzu.

Gurekin lan egin nahi baduzu, astelehenero arratsaldeko 18:00tan Txondorran elkar-tzen gara.

Egiako Etxebizitza Sindikatua trabaja por el derecho a la vivienda y contra la mercantilización de la misma. Ofrece ayuda y apoyo a quien tenga problemas de vivienda.

Todos los lunes nos reunimos en Txondorra a las 18:00 horas.

KONTAKTUA / CONTACTO
egiakoetxebizitzasindikatua@gmail.com
Tel. 688 772 426

Hau Egia da!

Auzoan kultur aniztasunaren baitako bizikidetzak lantzeko eta "Hau Egia Da!" proiektuari jarraipena emateko asmoz, hainbat ekimen eman dira aurrera. Horien artean, auzoko elkarteetako kideei eta bizilagunei zuzendutako "Elkarbizitza eta zurrumurruak" formakuntza zikloa eta "Egiako auzoa" proiektua.



Formakuntza zikloa Udaleko Kultur aniztasunaren bulegoak antolatu du, eta bi saioz osatu da. Lehenengo saioan, Elkarrekin ikerketa eta gizarte ekintza kooperatibako kideen eskutik, kulturarteko ereduaz hausnartu eta berau lantzeko tresnak elkarbanatu ziren. Bigarren saioan, eta Asier Gallastegiren eskutik, parte hartzaileek aukera izan zuten zurrumurruei aurre egiteko komunikazio estrategiak lantzeko.

Sos Arrazakeria, Emaus Gizarte fundazioa eta Darkum elkarteak kideek bultzatutako "Egiako auzoa" proiektuak, auzoan bizi diren pertsonen artean (migrante zein autoktono) harremanak sustatzeko helburua du. Urte osoan zehar parte hartze prozesu bat egin dute hainbat eragilerek eta hilean behin Darkumek bizikletak konpontzeko tailerrak eskainiko ditu Plaza Haundin.

Con el objetivo de dar continuidad al proyecto "Hau Egia Da!" que pretende trabajar la convivencia en el barrio desde la diversidad cultural, se han llevado a cabo diferentes iniciativas. Entre ellas, el ciclo formativo "Convivencia y rumores" dirigido a los y las integrantes de las asociaciones y a los vecinos y vecinas del barrio, y el proyecto "Egiako auzoa".

El ciclo formativo, organizado desde el departamento de Diversidad Cultural del ayuntamiento, se ha completado con dos sesiones. En la primera sesión, llevada a cabo por miembros de la cooperativa de investigación y acción social Elkarrekin, se reflexionó sobre el modelo intercultural y se compartieron herramientas para trabajarlo. En la segunda sesión las participantes tuvieron la oportunidad de trabajar estrategias de comunicación para combatir los rumores de la mano de Asier Gallastegi.

El proyecto "Egiako auzoa" impulsado por Sos Racismo, Emaus Gizarte Fundazioa y Darkum elkarteak, tiene como objetivo fomentar las relaciones entre las personas (migrantes y autóctonas) que viven en el barrio. Han llevado a cabo durante todo el año un proceso participativo con diversos agentes y una vez al mes Darkum ofrecerá talleres de reparación de bicicletas en Plaza Haundi.



Te invitamos a acudir a las reuniones de **EGIA BIZIRIK** en Blas de Otero plaza, 1. Si tienes ganas de echar una manita, te esperamos los primeros y terceros martes del mes a las 19:30 de la tarde



Egia bizirik
EGIAKO AUZO ELKARTEA